

# Antxiñako fotografixia



## Korpus eguneko prozesioa Largoneko Kantoitik pasatzen.

**A**rgazki hau, gerra amaitu eta laister ateratakoa izango da. **Erostegineko** edo **Largoneko** izena zeukan kantoitik Korpus eguneko prozesioak pasatzen dihardu. Kale Zaharreko beheko aldean, alegia. Argazki hau egin zenean, Lizaur Kalea zabaldu barik zegoen oraindik; garbi ikusten da kalearen zabalera ere orain baino estuagoa zela. **Ikasola Kalia** edo **Kolejixo kalia** deitzen zitzaion gaur egun Madina kalea denari. Orduan estaziño aldera ez zegoen pasorik, hor ageri den horma baino. Eskuma aldean dagoen etxea **Arrazolanekoa** da; gaur egun ere argazkian duen antzerako itxura mantentzen du. Lizaur kalea 1960 inguruan zabaldu zen. **Largoneko Etxea** bota ondoren.

Kalea adokinatuta dago eta Korpus eguneko prozesioetan ohitura den bezala, **ihixak** agertzen dira lurrian. Argazkian ikusten da lehenengo Ama Birjinaren errepresentazioa doala, gero, **Don Migel Diez Umerez** abadea, San Migel eta Jesu Kristo ondoren; eta bi alboetan, berriz, Apostoladuaeren kofradiko kideak: kapekin hasieran eta apostolu jantzita jarraian; atzean tripleak, koruko gizonak, agustinoak e.a.

Atzekaldean ageri dena Etxeberrialde Etxea da eta Aitzgain ere garbi ikusten da.

*Eskerrak Jerardo Elortzari argazkia uzteagatik eta argibideak emateagatik.*

**OHARRA:** Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituztu, zatoz!